



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2020KO AZAROAREN 30EAN
GOIZEKO 9:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak: Lur Etxeberria Gurrutxaga eta Beñat Larrañaga Urdanpilleta.

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Ez dira bertaratu: Joxe Mari Iribar Zapirain eta Itziar Basterrika Unanue.

1.- 2020KO ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA ONARTZEA.

Espediente zenb.: ID.06/151

IKUSIRIK

2020ko otsailaren 26ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2020ko Lanpostuen zerrenda eta Plantilla Organikoa. Ondoren, Udalbatzak 2020ko uztailaren 23an egindako ezohiko bilkuran Usurbilgo Udaleko 2020ko Langileen Plantila eta Lanpostuen Zerrendan aldaketak onartu zituen, udaltzaingoan Ajente Lehena sortuz. Erreklamaziorik ez zen egon eta 2020ko abuztuaren 20an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren behin betikoz onartuta geratuz.

KONTUAN HARTURIK

Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategineko 70. artikulua eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 23. eta 24. artikuluek diotena.

Estatuko 2018. urteko aurrekontu orokorreari buruzko uztailaren 3ko 6/2018 legearen 19. artikulua. Estatuak berak, 2020ko aurrekontu legea onartu gabe eduki arren, 2020 urriaren 29ko E.A.O.ean 2020ko Lan Eskaintza Publikoa argitaratu duela.

Alkatetzaren 2005/1064 zenbakidun Dekretuan Enplegu Publikoaren eskaintza onartzeko ezarritako eskuduntzen egikaritzan, Tokiko Gobernu Batzarrari eginiko lagapena,

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGOA.- 2020ko Enplegu Publikorako Eskaintza onartzea, akordio honekin batera I.



Usurbilgo Udala

Eranskin gisa doan dokumentuan azaltzen den plaza jasotzen duena.

BIGARRENGOA.- 2020ko Enplegu Publikorako Eskaintza Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian laburpen bat argitaratzea.

I. ERANSKINA

2020KO ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 23. artikuluan ezarritakoari dagokionez, hutsik dauden plazak 2020ko otsailaren 26ko eta abuztuaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialetan argitaraturiko 2020 urteko Lanpostuen Zerrendan eta bere moldaketan agertzen direnak dira.

2020 urteko Enplegu Publikorako Eskaintzan jasotako lanpostuak honakoak da:

Sailkapen taldea	Eskala	Azpieskala	Izena	Hizkuntza eskakizuna	Plaza kopurua	Txanda	Lanaldia
C1	Administrazio Orokorra	Administraria	Kontuhartzaitzako administraria	C1. derrigorrezkoa	1	irekia	100%
A2	Administrazio berezia	Teknikoa	Errenta eta Ondare Teknikaria	C2 derrigorrezkoa	1	irekia	100%
A2	Administrazio berezia	Teknikoa	Gizarte langilea	C1 derrigorrezkoa	1	irekia	100%
A2	Administrazio berezia	Teknikoa	Kirol saileko burua	C2 derrigorrezkoa	1	irekia	100%
C1	Administrazio berezia	Zerbitzu Bereziak	Ajente Lehena	C1 derrigorrezkoa	1	Barne Promozioa	100%
C2	Administrazio berezia	Zerbitzu Bereziak	Kale garbiketako ofiziala	B 2 derrigorrezkoa	1	Barne Promozioa	100%

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:40etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.